

Kaixo,

Hondakinak jasotzen ditugun langileak gara, atez ateko langileak esanda ezagunagoak. Mikel, Felipe, Kroke, Pello, Axier, Lur, Iñigo, Bittor, Borda, Iñigo, Isidro, Fernan... gara.

Hasteko, garbi utzi nahi dugu **ez garela Garbitaniako langileak, baizik eta herri-langileak, herritar guztiei irekia zegoen lehiaketa publiko bateko lan-poltsarako hautatuak izan ginenak.** Batzuk Pasaian bizi gara, eta beste batzuk ezagutzen gaituzue garbitxokoetan ikusi gaituzuelako.

Puntu hori argituta, zuen arreta erakarri nahi dugu une honetan dugun lan etorkizunari buruz.

Hauteskundeen ondorioz aldaketa bat egon da udal gobernuan, eta horren ondorioz hondakinak biltzeko sistema aldatu egingo da. Gertaera horrek egonezina sortu zigun gure lan egoeraz, eta, horregatik, bilera bat eskatu genion Izaskun Gomez (PSE) alkateari.

Bilera hartan alkateak esan zigun beraien ideia bilketa sistema San Markoseko Mankomunitateari eskualdatzea zela, eta horren ondorioz, 13 langileok langabeziara joango ginela. Zur eta lur geratu ginen albisteagatik eta egia hain gordin aitortzeagatik. Era berean adierazi zigun babes politikoa behar zuela bere erabakia aurrera eramateko.

Gisa denez, bilera eskatu genion EAJri. Hauek ez ziguten ezer argitu hondakin-bilketaz zuten asmoari buruz. Geroago ikusi dugu PSE eta EAJren artean ituna egon dela, eta PSEk eta EAJk alderdi bakoitzeko zinegotzi bana izendatu dutela San Markoseko Mankomunitaterako. Beraz, mendiko iturri garbia bezain garbi daude gauzak.

## **Kalera bota nahi gaituzte.**

Badakigu Pasaiak ez duela Udal bereziki aberatsa, baina aldi berean, gure lanaren fruitu, ikusi dugu Pasaiak premia ugari duela, eta Zerbitzuen Sailetik haiek asetzen saiatu izan gara.

Gure zereginen artean hondakin-bilketaz gain honako hauek daude:

- 1.- Hondakin solidoen eta altzarien bilketa.
- 2.- Inausketa-lanak eta lorategi eta sastraka-garbiketa.
- 3.- Instalazio mugikorren muntatze-lanak (oholtzak, egiturak, hesiak, etab.)
- 4.- Bide garbiketa eta saneamendu sarea (hustubideak, estoldak, etab.)

Egiantan zerbitzuetan denetik egin dugu. Eta benetan lana eta premia soberan dago. Pasaitarrak horren jakitun zaretelakoan gaude. Horregatik ez dugu ulertzen gu eta gure familiak langabeziara bidaltzea.

**Benetan uste dugu Udalak hondakin-bilketa aldatuagatik, eta udal-eskumena pribatizatu gabe mantenduaz, lana egongo litzatekeela gutako batzuentzat, eta gainerakoek jarraitu ahal izango genukeela lanean Zerbitzuen Departamentuarentzat. Gaude ez liratekeela bakarrik gure lanpostuak salbatuko, baizik eta zerbitzu publikoak indartu egingo liratekeela Pasaian, eta horren beharra egunez egun egiaztatu dugu. Aipatu gabe gobernu berriaren inbestiduran enplegua sustatzeaz hitz egin zutela.**

**Amaitzeko, zuen babesa eskatzen dugu deitzen ari garen kontzentrazioetarako, batez ere irailaren 16an, 19:30ean, Pasai Antxoko Zumardian egingo denerako; adorea eta kuraia emango liguke bertan parte hartuko bazenute. Denok aterako gara irabazian.**

**Eskerrik asko, Mikel, Felipe, Kroke, Pello, Axier, Lur, Iñigo, Bittor, Borda, Iñigo, Isidro, Fernan... Hondakin-bilketako eta Pasaiako Udaleko Zerbitzu Saileko langileak**

Hola,

Somos los trabajadores de la recogida de residuos, mas conocidos como los trabajadores de la puerta a puerta. Somos Mikel, Felipe, Kroke, Pello, Axier, Lur, Iñigo, Bittor, Borda, Iñigo, Isidro, Fernan...

Para empezar, debemos de aclarar que **no somos trabajadores de Garbitania, sino trabajadores públicos en virtud de una bolsa de trabajo en un concurso público abierto a todos los ciudadanos**. Algunos vivimos en Pasaia y a otros nos conocéis de vuestro paso por los "garbitxokos".

Aclarado esto, queremos llamar vuestra atención sobre nuestro próximo futuro laboral.

Debido a las elecciones ha habido un cambio en el gobierno municipal, y consecuencia de ello, va a cambiar el sistema de recogida de residuos. Este hecho genero inquietud en nuestra situación laboral y por lo tanto pedimos una reunión con la alcaldesa Izaskun Gómez (PSE).

En dicha reunión la alcaldesa nos comunicó que su idea es pasar el sistema de recogida a manos de la mancomunidad de San Marcos, y que en consecuencia, los 13 trabajadores íbamos al paro. Nos quedamos estupefactos tanto por la noticia como por su sinceridad. Nos comunicó asimismo que necesitaba apoyos políticos para realizar tal decisión.

Lógicamente pedimos una reunión con el PNV. Estos no nos aclararon nada sobre sus intenciones respecto a la recogida. Posteriormente hemos visto que ha habido pacto entre el PSE y el PNV nombrado en la mancomunidad de San Marcos a un miembro de cada partido. Blanco y en botella, mas claro no puede estar.

## **Nos quieren echar a la calle.**

Sabemos que Pasaia no tiene precisamente un Ayuntamiento rico, pero a la vez fruto de nuestro trabajo, hemos visto que Pasaia tiene muchas necesidades que hemos estado cubriendo desde el departamento de servicios.

Entre nuestras funciones aparte de la recogida están las siguientes:

- 1.- Recogida de muebles y residuos sólidos.
- 2.- Labores de poda y limpieza de jardines y maleza.
- 3.- Montaje de instalaciones móviles (tablados, estructuras, vallados, etc...)
- 4.- Limpieza viaria y de red de saneamiento (desagües, alcantarillas, etc..)

En realidad, en servicios hemos hecho casi de todo. Y la verdad es que hay trabajo y necesidad de sobra. Creemos que los Pasaitarras sois conscientes de ello. Por ello no entendemos que nos envíen a nosotros y a nuestras familias al paro.

**Creemos sinceramente que si el Ayuntamiento aun cambiando el sistema de recogida a otro, y manteniendo la competencia sin privatizarlo, mantendría trabajo para algunos de nosotros, y los demás, podríamos seguir trabajando para el departamento de servicios. Creemos que no solo se salvarían puestos de trabajo, sino que se reforzarían los servicios públicos en Pasaia, necesidad que hemos constatado en el día a día. Por no mencionar que en la investidura del nuevo gobierno hablaban de fomentar el empleo.**

**Para acabar, os pedimos vuestro apoyo en las movilizaciones que estamos convocando, sobre todo la que tendrá lugar el próximo día 16 de septiembre a las 19:30 horas en la alameda de Pasai Antxo, y nos daría muchos ánimos que tomaseis parte en ella. Todos saldremos ganando.**

**Eskerrik asko, Mikel, Felipe, Kroke, Pello, Axier, Lur, Iñigo, Bittor, Borda, Iñigo, Isidro y Fernan... Trabajadores de la recogida de residuos y del departamento de servicios del ayuntamiento de Pasaia.**